

IRAKASKUNTZA-GIDA

2015/16

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25797 - Kirol Jolasak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasgai honek tradiziozko gazteen kirol joko-jolasak garatzen ditu, giza testuinguru berezitasunak eta barne logikako ezaugarrien arteko loturak azpimarratuz. Horretarako, Euskalherriko tradiziozko kirol joko-jolasen errepertorioa hartzen du eredu.

Ekintza motorren praktika eta analisi motorrean zentratuta, "Kirol jolasak" oso lotuta dago "Praxiologia motorra"-rekin, "Gorputz adierazpena eta dantza"-rekin, eta oro har graduan ematen diren kirol eta ikasgai motor guztiekin. Bestalde, heziketaren dimentsioa "Hezkuntza" ikusiko du ikasleak.

Titulazioan oso irakasgai funtzeko da, ez bakarrik jarduera fisikoetako edozein interbentzioaren arlotan eskeintzen dituen baliabideengatik, baizik eta ezkeintzen dituen giza egituren aberastasunengatik eta sustatzen dituen efektu eta egoera pedagogiko berezitasunengatik.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IRAKASGAIAREN GAITASUN ESPEZIFIKOAK

G1. Euskalherriko tradiziozko kirol joko-jolas korpus bat ezagutu, euren estrategiak praktikan azalera ekarriz, eta jokariak espazioarekin, besteekin, denborarekin eta objektuekin mantentzen dituen erlazioak, hau da barne logikaren elementuak, aztertuz, gero lan munduko baliabideekin lotzeko.

IKASKETA EMAITZAK:

- Ikasleek motorezko gaitasunaren maila bat lortuko dute kirol joko-jolasetan, motorezko egituren ezagupen praktikoak eta inplikaturak dauden gorputz teknikak oinarritz hartuz
- Ikasleak gai izango dira haur joko jolas tradizionalak ondo deskribatzeko eta honekin batera fitxero bat egiteko gorputz tekniken ezagupenak, egiturak eta horien funtzioak hainbat arlo pedagogikotan oinarritz hartuz.

G2. Kirol joko-jolasen eta kulturaren arteko harremana azaldu, Euskal Herriko testuinguruan oinarritz, hau da, etxea ardatz moduan hartuz eta generoa, jaiak, apustuak eta animaliekiko harremanen ezaugarriak azpimarratuz.

IKASKETA EMAITZAK:

- Ikasleak gai izango dira joko jolasen barne egitura eta Euskalherriaren giza testuinguruaren artean dagoen harremana ahoz eta idatziz azaltzeko

ZEHARKAKO GAITASUNAK

G020. Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.

IKASKETA EMAITZAK:

- Ikasleek joko-jolas askotan parte hartuko dute, araudiak ulertuko dituzte eta gai izango dira zuhertasunez eta testuinguruaren errespetatuz strategi motorrak azalarazten.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Etnomotrizitatea. Gazteen kirol joko-jolasak eta kultur fisikoa Euskal Herrian.
2. Eremu etnomotorra. Ziurgabetasun espazioa eta kultur pentsamendua. Joko-jolasak ziurak eta ziurgabeak.
3. Harreman etnomotorrak. Parte-hartzaileen arteko giza-harremanak eta giza-rolak. Joko-jolasak psikomotorrak eta soziomotorrak.
4. Etnomotrizitatea eta denbora. Kultur denbora eta garaipen ludikoa. Joko-jolas gareiledunak eta garailegabeak.
5. Materiazko kultur ludikoa. Joko-jolasak tresnadunak eta tresnagabedunak.
6. Kirol joko-jolasen kultur esanahia. Jokoa eta jolasa, jokabide ludikoaren esanahia, giza-jokabidearen eredua.
7. Joko-jolasak eta emozioak.

METODOLOGIA

Saio praktikoak Fakultateko polikiroldegian eta kanpoko erezintan egingo dira. Saio magistralak, berriz, ikasgelan. Ikasgai honen ezaugarriak direla eta, ezinbestekoa da praktiketan lankidetzako jarrera, interesa eta batak bestearekiko begirunez parte hartzea. Honekin lotuta, zeharkako gaitasuna G020 saio praktiketan landuko da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		45						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	22,5		67,5						

Legenda:

M: Maistrala S: Minteia GA: Gelako d. GL: Laboratediko d. GO: Ordenaailuko d.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa d.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio mistoaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 30
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 40
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 30

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

G020 zeharkako gaitasuna ebaluatuko da hurrengo modu honetan:

1.- Ebaluazio mistoa (notaren %70): Kirol joko-jolas corpus baten praktika motorra eskatuko da, eta honekin batera ariketak egingo dira joko-jolas horiek identifikatzeko, araudien deskribapen literarioa idazteko, barne logika argitzeko irudimen grafikoa egiteko eta ohar pedagogikoak azalarazteko. Horretarako %60 asistentziaz eskatuko da.

Balorazio teorikoa (notaren %30): Irakurketak eta ariketa batzuk egingo dira kirol joko-jolasen kultur esanahiaren azterketa lantzeko.

Ikasleak bai zati praktikoa bai zati teorikoa gainditu behar du azken nota osatzeko.

2.- Ebaluazio finala: Ikasleak aukera izango du irakasgaiaren %100 ebaluatzen azterketa batekin, betiere landutako joko-jolasen dossier bat irakasleari entregatuta.

Ebaluazio mistoa jarraitzen duen ikasle batek irakasgaiaren zati bat gainditzen ez bada (teorikoa edo praktikoa), ohiko deialdian aurkeztu daiteke bakarrik gainditu ez duen zatia egiteko.

Deialdi batean ikaslea aurkezten ez bada, deialdi horri uko egiten diola ulertzen da eta horren ondorioz ez da deialdien zenbaketan kontuan hartuko, eta Ez Aurkeztuta agertuko da kalifikazioetan.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

- Ebaluazio mistoa jarraitu duen ikasle batek ohiko deialdiaren ondoren irakasgaiaren zati bat gainditu gabe geratzekotan (teorikoa edo praktikoa), ez ohiko deialdian aurkeztu daiteke bakarrik gainditu ez duen zatia egiteko.
- Bestalde, ikasleak aukera izango du irakasgaiaren %100 ebaluatzen ez ohiko azterketa batekin, betiere landutako joko-jolasen dossier bat irakasleari entregatuta.

Deialdi batean ikaslea aurkezten ez bada, deialdi horri uko egiten diola ulertzen da eta horren ondorioz ez da deialdien zenbaketan kontuan hartuko, eta Ez Aurkeztuta agertuko da kalifikazioetan.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

CEMÉA. Groupe national de recherche "Jeux et Pratiques Ludiques" (1999).- Jeux sportifs. 24 jeux sans frontières. Paris: Ceméa Publications.

CEMÉA. Groupe national de recherche "Jeux et Pratiques Ludiques"(2010).- Jeux du monde, d'ici et d'ailleurs. Paris: Ceméa Publications.

Etniker (1993). - Juegos infantiles en Vasconia. Bilbao: Etniker, Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernua.

Etxebeste, J. (2001). Les jeux sportifs, éléments de la socialisation traditionnelle des enfants du Pays Basque. Thesis (Ph. D.) -Université Paris V - Rene Descartes-Sorbonne.

Etxebeste, J. y Urdangarin, C. (2004). "Reflexiones sobre la Educación Física de hoy a la luz de las características de la cultura tradicional vasca". En: La ciencia de la acción motriz. Lleida: U.Lleida Editorial.

Etxebeste, J. y Urdangarin, C. (2005). Euskal jokoa eta jolasa. Transmittiendo una herencia vasca a partir del juego. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Etxebeste, J. (2002). Jokoa y jolasa; dos conceptos vascos para el juego. En: Libro de los actos del quinto congreso de ciencias de la educación, deporte, educación física y la recreación. Lleida: INEFEC Lleida, pp.267.-276.

Parlebas, P. (2001). Juegos, deporte y sociedad. Léxico de praxiología motriz. Barcelona: Paidotribo.

Parlebas, P. (1988). Elementos de sociología del deporte. Málaga: Junta de Andalucía: Universidad Internacional Deportiva.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Caro Baroja, J.(1971). Los vascos. Madrid : Itsmo.

During, B.(1981). La crisis de las pedagogías corporales. Malaga : Unisport, Junta de Andalucía.

Hall. E.T.(1978). La dimension cachée. Paris : Editions du Seuil.

Lagardera, F., & Lavega, P. (2003). Introducción a la praxiología motriz. Barcelona: Paidotribo

Mead, M.(2001). Growing up in New Guinea. Perennial Classics : New York.

Zulaika, J.(1990).Ehiztariaren erotika. Donostia : Erein.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK